



Andoaindik eta Urnietatik abiatuta, martxa antolatu dute Zubietara

"Burua duenak ez du erraustegirik nahi bere herrian, eta bihotza duenak ez du beste inoren herrian nahi", lelopean igande honetarako martxa antolatu dute.

Aurreko asteburuan Andoainen "Arduraren aldeko giza-katea" egin eta gero, erraustegiari ezezkoa adierazteko aukera berria izango da igande honetan. Aiztondo-Beterri-Buruntza aldeko herri askotatik martxa ezberdinak irtengo dira Zubietan eraikitzearen gunera. Hara joateko Andoaindik eta Urnietatik martxa bana irtengo da, eta dagoeneko ordutegiak zehaztu dituzte.

Igandekoa errausketaren kontrako mugimenduak deitu du, eta erakunde askoren atxikimendua jaso dute. Batasun ideia zabaldu nahi dute: "Igandeko martxa tokian tokiko ekimen guztiak bat datozela adierazteko modu bat da. Horren isla da martxaren egitura bera. Izan ere, martxa hainbat herritatik abiatuko da eta parte-hartzaileak bidean topatzen jo-



Andoaindik eta Urnietatik Zubietara aldera martxa bana irtengo da igande goizean.

ango dira. Azkenean, edonondik abiatu direla ere, denek bat egingo dute 12:00ak aldera Letabiden, Aldundiak Gipuzkoako erraustegia eraiki nahi duen parajea, alegia. Gero elkarrekin jaitsiko dira Zubietara".

Martxak bigarren asmo nagusia du: Agintariek erraustegia eraikitzea beste erremedio-

rik ez dagoela diotenean, baieztapen horri aurre egitea. "Oso zaila dute, guk ederki asko baitakigu partida ez dela inolaz ere erabaki. Partida elkarrekin jokatzeko erabaki dugu. Hori da martxaren bidez zabaldu nahi dugun beste ideia nagusia".

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]
[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Otsailak 28, igandea

Martxa Zubietako gunera:

- 08:00** Andoain, merkatu plaza.
- 09:30** Urnieta, San Juan plaza.
- 10:30** Lasarte-Oria, Okendo.
- 11:00** Zubietako plazan.
- 13:00** Zubietako frontoian amaierako ekitaldia.

Super H elkartearen eskutik, ikuskizuna

Igande honetan arratsaldeko 17:30etan hasita, Miren Amurizak Super H elkartearentzat idatzitako ipuinaren gainean ikuskizuna taularatu dute Saroben.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Martxoak 8 bi herrietan

Andoingo egitaraua finkatuta dago eta dagoeneko aurten omenduko dituzten emakumeen izen-abizenak jakitera eman dituzte. Urnietan, azken xehetasunak falta badira ere, ia ekitaldi guztiak lotuta daude.

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]

Mikel Esnal Euskal Herriko txapelduna

Iruñeko igerilekuan bi domina eskuratu ditu Andoingo igerilariak.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

ANDOAIN TXARTELA

Martxoaren 31ra arte

SALKIN DENDETAN BEHERAPENAK

%10 arteko beherapena

gehenez 500eko erosketetan, eta baliorik gabe bidaia agentzia eta gasolindegietan

Gutxienez %5a, atzeratutako erosketetan izan ezik

%2 PETROMIRALLES GASOLINDEGIAN ETA ZERBITZUGUNEAN



Lanak Berrasoeta parkean

Parkeko haur jolasen eremuan sortzen ari diren lubi-ziak konpontzeko lanak aurreko ostiralean abiatu ziren.

Gauzak ondo, martxoaren lehen astebururako konponduta izango da egun hauetan itxita dagoen eremua.

Hitzorduak Denda Berrin

Martxoaren 4an Arantxa Intxaustik hitzaldia eskainiko du egoitzan bertan.

Martxoaren 15ean, berriz, eskualde mailako karta-joko txapelketa arratsaldeko

17:00etan hasita. Izen ematea martxoaren 11n amaituko da.

Apirilean, bestalde, data ezberdinetan, eskuko telefonoa erabiltzeko ikastaroa.

Berrikuntza soziala hizpide Beterri eskualdean

Urberritzen izena jarri diote Beterri eta Urola Erdia eskualdeetan ikuspegi soziale-rik berrikuntza bultzatzeko prozesuari, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoari esker gauzatu-ko da. Lehen topagunea otsailaren 26an egingo da Hernanin, Gabriel Zelaia eraikinean, 10:00etatik 13:00etara. Saio horretan, egitasmoa aurkezteaz gainera, tokiko garapen-ereduen bi kasu praktikoa emango dira ezagutzera: Azaro Fundazioa eta Bagara Elkarte-
 Prozesua askotariko eragileekin osatu nahi da, aberasgarria izango baita arlo bateko eta besteko erakundeekin elkarlanean. **Urberritzen** egitasmoaren helburu nagusia berrikuntza sozialean ardaztutako dinamika iraunkor bat sortzea eta eragileen arteko artikulazioa hobetzea da.

lau topagune antolatuko dira. Lehen topagunea otsailaren 26an egingo da Hernanin, Gabriel Zelaia eraikinean, 10:00etatik 13:00etara. Saio horretan, egitasmoa aurkezteaz gainera, tokiko garapen-ereduen bi kasu praktikoa emango dira ezagutzera: Azaro Fundazioa eta Bagara Elkarte-
 Prozesua askotariko eragileekin osatu nahi da, aberasgarria izango baita arlo bateko eta besteko erakundeekin elkarlanean. **Urberritzen** egitasmoaren helburu nagusia berrikuntza sozialean ardaztutako dinamika iraunkor bat sortzea eta eragileen arteko artikulazioa hobetzea da.

Lehen saiora etortzeko interesa duten eragileek bi bide hauek dituzte izena emateko: 688 684 956 – 688 685 586 telefonora deitzea edo enpresa@andoain.eus helbidera idaztea”.

Postontzia:

“Donostia-Beterri eskualdeko udalek Beterri eta Urola Erdia eskualdeetan berrikuntza soziala lantzeko proiektua jarri dute martxan, Urola Erdiko Berrikuntza eta Garapen Agentziarekin eta Elhuyar Aholkularitzarekin elkarlanean. **Urberritzen** egitasmoaren helburu nagusia berrikuntza sozialean ardaztutako dinamika iraunkor bat sortzea eta eragileen arteko artikulazioa hobetzea da.

Beterri eskualdera etorrita, aurren, hartu zuten. Urnietarrekin elkartasuna herritik gertu erakutsi ahal izan zuten, Martutenen hain zuzen.

Espetxeetara martxa, urnietarrak Martutenen



Aurreko larunbat eguerdian presoan aldeko elkartasun martxa antolatu zuten.

Aurreko larunbatean ezker abertzaleak espetxeetara martxa antolatu zuen. Denera, 3.500 herritarrek parte

hartzera. Urnietarrekin elkartasuna herritik gertu erakutsi ahal izan zuten, Martutenen hain zuzen.

Larunbatean egun osoan zehar, baita igande goizean ere

Asteburuan beherapen handiez baliatzeko aukera

Tren geltokitik aurrera, Igarategi industriagunean dagoen Iturbe altzarietan beherapen handiak jarri dituzte egun hauetan. Erakuslehoan dituzten altzairuak aldatzeko, %80rainoko beherapenak jarri dituzte tamaina handiko altzarietan: haurrentzako literetan, egongelako armairuetan, sukaldeetan, sofatan... “Altzairu handietan jarri ditugu deskontu handienak”, azaldu du Marisa Iturbek.

Produktu txikietan ere %15-%30 inguruko deskontuak jarri dituzte; izan ere, bezeroak erakartzeko modu onena produktuak merkeago eskaintzea dela uste du. Aurtengoa hirugarren urtea da eta, oraingoz, lehengo urteen gisara, jende dezente gerturatu dela adierazi du: “Urnietarrak eta andoaindarrak gerturatu dira gehien. Edonola ere, Donostia eta Orio inguruko jendeak ere bi-



Dendariek diotenez, urnietarrak eta andoaindarrak gerturatu dira gehien.

situatu du denda. Jende ugari etorri da eta ezin gara kexatu”.

Oraindik bada beherapen tarako aukera, asteburu honetan izango baita azken txanpa: “Larunbatetan izaten dugu jende gehien, baina egia da asteburuan jendea ikustera soilik etortzen dela. Gero, astean zehar, lasaiago itzultzen dira neurriak hartuta erostera”. Be-

raz, asteburu honetan neurriak hartuta joatea gomendatu dute, zailena altzairuen neurriek etxeko neurriekin bat egitea izaten baita.

Dendara bertaratzeko deia luzatzeaz gain, etorri diren guztiei eskerrak eman dizkie Marisak. Ordutegia:

- Larunbata: 09:30-19:30.
- Igandea: 09:30-13:00.

Zubietara martxa, San Juan plazatik Lasarte aldera abiatuta

Erraustegiaren aurkako martxa, igande honetan

Postontzia Urnietako herritar taldea

“Datorren otsailaren 28an, hainbat kolektibok erraustegiaren eraikuntzaren aurkako martxa antolatu dute. Martxa honek eraikuntza-eremuaren inguruko herrietatik abiatuko diren zutabeak izango ditu, hala nola, Andoain, Urnieta, Hernani, Donostia, Zizurkil, Lasarte-Oria eta Usurbildik.

Urnietako zutabea goizeko 9:30ean San Juan plazatik abiatuko da Lasarterantz. Han, Lasarteko zutabearekin eta Donostia eta Añorgatik datozenekin bat egingo dugu.

Erraustegiaren aurkako borroka luze honek gure herrian izan zuen hasiera. Tamalez, oraingoz ere herritar guztientzako hain kaltegarria den erraustegia gelditzeko borro-

kan jarraitzea beharrezkoa da eta horregatik, urnietar guztiok parte hartzea gonbidatzen zaituztegu.

Gure osasunagatik eta beste aukera batzuk badaudelako!! Errausketari ez!

Igandean, goizeko 9:30ean San Juan plazan ikusiko dugu elkar.

Parte hartu, gure osasuna denon ardura da!”.

BERTAN ARRETA ZERBITZUA, EREDU UDALERRI ASKORENTZAT



2013ko urtarrilaren 7an Bertan Udal zerbitzua martxan jarri zen Urnietan, herritarrei eskaintzen zaien arreta zerbitzua hobetu asmoz. Denbora tarte honetan bere funtzioa betetzeaz gain, hainbat udalerrirerentzat eredu bilakatu da. Aurreko astean Pasaiaiko Udal ordezkariak Urnietara hurbildu ziren, ezarritako sistema eta funtzionamendua gertutik ezagutu asmoz.

IGANDE HONETAN SAROBEN, ELKARTASUNEZKO KULTUR HITZORDUA

Ipuina, ikuskizun bilakatuta

Udazkenean Miren Amurizak eta Almu Salasek idatzi eta ilustraturiko ipuina aurkeztu zuten. Eguberrietan han eta hemen argitaratu zuten edizioaren lau mila ale saldu eta gero, urte berriari ipuinean

oinarrituriko ikuskizunarekin hasiera emango diote. Luxuzko laguntzaileekin, gainera. Miren Amurizak eta Alos Quartet eta Aukeran konpainiek bat egin dute Urnietako ekimenarekin.

Ikuskizun musikatua

"HONTZ ZURIAREN LURRALDEAN"

Otsailak 28, igandea.

17:30. Sarobe. 3 euro.

Antolatzailea: Super H elkarte.

■ Kontalaria: Miren Amuriza bertsoalaria eta ipuinaren egilea.

■ Musikariak: Francisco Herrero, Lorena Nuñez, Xabier Zeberio (Alos Quartet).

■ Dantzaria: Olatz Oribe (Aukeran Dantza Konpainia).



gainera salto egingo du. Igan-de honetan Saroben eskainiko dute, luxuzko parte hartzearekin. Saio bat eta bakarra izango da, oraingoz. **Almu Salas** elkarteke lehendakariarentzat galdu ezin den aukera horietakoa da: "Ikuskizun polita eta hunkigarria ikusteko aukera izango da". Arantzazuk xehe-tasun gehiago eskaini du: "Ipuinaren kontakizuna ikuskizunaren muinean dago, eta kontaktari musika eta dantza uztartuko zaizkio".

Ikuskizunaren estreinaldia elkarte ezagutarazteko baliatuko dute. Eta horrez gain, igande honetan bertan Super H elkarteke minbizia duten haurren ikerkuntzan sakontzeko 9.900 euroko txekia emango diete BioDonostiako iker-tzaileei, ikuskizuna amaitu eta gero egingo duten ekitalditxoan. Sanmiletako pintxo potea eta txekor jatea, Urte Zaharreko San Silbestre lasterketa, Super H markadun produktuen salmenta..., diru kopuru polita bildu dute azken denboraldian, ikerkuntzarako bideratuko dutena.

Txeke horren ematearen lekuko izango dira Gipuzkoako eta eskualdeko erakundeetako ordezkariak ere, liburuaren ekoiz-penean babesle izan zirenak.

Urnietako taldea haur min-biziaren ikerkuntzaren garape-

nean laguntzaile modura buru-belarri ari da lanean hilabete hauetan. Donostiako **BioDonosti**arekin ez ezik, Bilboko **Cruces** ospitalarekin ere lanean hasteko prest dira.

ERRONKA BERRIA, APIRILAREN 30EAN

Igan-dekoa eta gero, taldeko ki-deak Super H egunaren bigarren edizioa prestatzen hasiko dira. Apirilaren 30ean izango da, Urnietako mendi lasterketaren bezperan. Ez da ahaztu behar, mendi lasterketaren iza- era solidarioa dela. Super H elkarteari laguntza emateko, hain zuzen.



Super H elkarteke Arantzazu eta Almu, ipuina eta ikuskizunaren kartela eskuetan.

Ipuina liburura eraman zuten lehenik: Urnietan, eskualdean, Durangoko Azokan eta Katalunian aurkeztera iritsi ziren. **Arantzazu Miner** Super Hko kideak hezkuntzan izan dezakeen eragina nabarmendu nahi du: "Liburuak ibilbide polita izan du, nahiko saldu dira eta datu hori baino garrantzitsuagoa da ikas-tetxeetan izan duen eragina aipatzea. Unitate didaktikoa sortu genuen eta dagoeneko ikastetxe- en interesa piztu dugu. Hezkun-tza munduan zabaltzen hasi da, beraz".

Eta ipuinak liburutik taula

EKAIN BERRI LEIZEETARA BISITALDIA



Agape ikastolako ikasleek bisonte, hartza, zaldi eta oreinen irudiak ikusi zituzten, Leizearen erreplikari. Ondoren, taller batean parte hartu zuten.

SAHARAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

Alaia Martin
Aitor Mendiluze
Beñat Gaztelumendi
Maialen Lujanbio
Oihana Iguaran
Unai Muñoa

Gaijartzailea: Jon Beloki

ANDOAINGO BASTERO KULTURGUNEAN
 2016/02/28 12:00etan

Sarrerak salgai: Delgado, Ernaizta, Stop, Urrats.

Hurria Sahara
S.E.A.D. en lagunen elkarte

Andoaingo POTTO
bertso eskola

laguntzaileak
ANDOAINGO UDALA

Aiurri
MUSA TOLABETXOP ANAIAR

MAPFRE
SEGUROS INVERSIÓNES ARABURU ARTEKARITZA

SALKIN MERKATARI ELKARTEAREN EKIMENA, ANDOAINGO UDALAREN LAGUNTZAREKIN

Deskontuak Andoain Txartela erabiltzean

Eguberrietako kanpainarako abiatu zen deskontu kanpaina, beste hiru hilabetez luzatzea erabaki dute Salkin merkatarien elkarteak eta Andoaingo Udalak.

Dendarientzat erosleak erakartzeko modu polita da. Udalarentzat estrategikoa da, “Andoaingo ekonomia sustatu eta herriko komertzioa indartzeko tresna baliagarria baita”.



Xixoriko Jone Etxeberria.



Ciclos Patxiko Patxi Bergara.



Viajemaniako Fernando Duarte.



Ormendiko Izaskun Mendizabal.



Anitako Jaione Vitoria.



Edergaiko Imanol Gonzalez.



Gorostidiko Josu Gorostidi.



Zabalako Begoña Zabala.

Salkin elkartearen pozik daude ekimenak dendarien artean onespenez maila lortu duelako: “Geroz eta gehiago gara **Andoain Txartela**ren egitaspora batu gare-

nak. Geroz eta komertzio eta jabetze gehiagotan erabil daitezke; Andoaingo merkatalguneen %40an erabilgarri dago jadanik, eta portzentaia igoko dela

ziur gaude”. Horrek, noski, txartelaren erabiltzaile kopuruan eragin du. Abantaila handia da, ez baita ahaztu behar txartelaren erabilerarekin %10eko des-

kontuak lortzeko aukera dagoela. Promozio kanpaina bereziaz baliatzeko aukera dago datorren martxoaren 31ra bitarte.

Aiurriko harpidedun izatearen abantailak:

TXOTX!

Harpidedun egin
zaitetz eta etxean
jasoko duzu:
943 300 732
idazkaritza@aiurri.eus

Sarasola
943 690 283
ASTEASU

Gaztañaga
943 591 968
ANDOAIN

Aburuza
943 692 452
ADUNA

Altuna
943 554 917
URNIETA

Oianume
943 556 683
URNIETA

Larre-gain
943 555 846
EREÑOZU-HERNANI

R. Zabala
943 690 774
ADUNA



EKIMENA IPAR HAIZEA PLATAFORMA BERRIAK ANTOLATU ZUEN

Giza-katea, ardura eskatuz

Erraustegiaren egitasmoak kezkatuta, hilabete gutxi Ipar Haizea plataforma sortu da Andoainen. Osasun aldetik kaltegarria delako, errauskailua berriro martxan jartzeko iragarpenak mehatxu larri-

tzat hartu dute. Aiztondo mailan ere kezka beretsua dute, eta aurreko ostegunean bailara hartako sei herrietako dozenaka lagunek Aiztondo izeneko plataforma sortu dute.



Goikoplazan amaitu zen giza-katea, zeinean alderdiei igorritako gutuna irakurri zuten.



Arrate plazan bilduta, jeltzaleen eta sozialisten egoitzen atariraino eskutik helduta egon ziren.



Eskuz esku, ardura eskatuz, giza-katearen ertz bat Batzokiraino iritsi zen. Itxita zegoen egoitza.



Sozialisten egoitzara iristean, bertan ziren Udal ordezkariak. Lainezek berak jaso zuen eskaera.

Andoainen eta Aiztondon, beraz, erraustegiarekiko aurkako jarre-
rak indartzen ari dira. Zer esanik ez agintaldi honetan hizpide izango dela sarritan. Andoainen dozenaka lagun bildu zen aurreko larunbat eguerdian, politikoei ardura eskatuz. Egitasmoaren alde jeltzaleak eta sozialistak agertu direnez, Ipar Haizea plataforma berriaren lehen jarduera alderdi bakoitzeko ordezkariari gutun bana helaraztea izan zen. Eskuz esku, hainbat lagun elkar hartuta Batzokira eta Herriko Etxera abiatu ziren. Giza-katearen ertz bat Batzokiraino iritsi zen. Itxita zegoen egoitza, eta atarian utzi zuten "Erantzukizuna" zioen sobre handi bat. Beste ertza Herriko Etxeraino iritsi zen. Sozialisten egoitzara iristean, bertan ziren Udal ordezkariak. Eskaera Maider Lainezek berak jaso zuen.

ORDEZKARI POLITIKOEI, IPAR HAIZEA PLATAFORMAREN GUTUNA

"Azken aldia Gipuzkoan errauskailu bat eraikitzeke plana abian jarri ondoren andoaindarrok arrisku bizian gaude berriz ere, gure herria proiektuaren kokapena den Zubietatik 3 kilometrora baitago, hau da honen eragin handiko 5 kilometroko perimetroaren barruan.

Mehatxu larria da eraikuntza hau oro har gipuzkoar guztientzat eta bereziki andoaindarrentzat. Besteen artean, Instituto de la Salud Carlos III erakundeak gahi buruz egindako txostenak baieztatzen du erraustegia bezalako azpiegiturek oso eragin larriak dituztela bertatik 20 kilometro bitarteko eremuan kokaturik dauden hirigunetako gizakien osasunean. Zaborren erretzeak guretzako eta gure ingurumenerako kaltegarriak diren produktuak, kopuru handitan, sortzen

ditu. Eta gai horiek, nabarmen handitzen dituzte gizakiongan minbizi mota batzuk edo diabetesa izateko aukerak, are gehiago erraustegitik 5 kilometroko eremuan dauden herrietako biztanleengan, Andoain kasu.

Datu kezkarri horienatik kezkatuta, andoaindar talde bat elkartu gara Zubietako erraustegi proiektuaren aurkako plataforma bat sortzeko asmoz. Plataforma irekia eta anitza nahi dugu, andoaindar guztiei irekia, non arduraz aztertu nahi ditugun proiektua eta bestelako alternatibak, aukera guztiak eztabaidatu eta negoziatziorako proposamenak egin. Ez dugu ahaztu behar proiektu honek gure ingurumenean eta osasunean izan ditzakeen ondorioek guztiongan eragin dezakeela. Ezin ditugu arinkeriak hartu gai honen inguruan egin diren

lehen aipatutako bezalako txosten zorrotz eta ganorazkoak, zeinak azaltzen diguten, ez bairik gabe, erraustegien inguruan gaixotasun larriek gora egiten dutela.

Andoaingo herritarren artean kezka handia sortzen duen gai honen aurrean, eta herritarren ordezkari publiko zaretenez, arduraz jokatzeko eskatu nahi dizuegu gutun honen bitartez. Zuen alderdietako zuzendaritzari helaraztea kezka hori, beste batzuk egin zuten moduan erraustegia non kokatu erabakitzeke erusiar ruleta moduan gipuzkoako herri batetik bestera paseatu zen garaian. Ez legoke gaizki, herritarren kezka horren bozeramaile bilakatu, eta alderdiaren zuzendaritzari jaramonik egin gabe, errauskailuaren aurka bozkatzeko bazenute, Lasarte-Oriako PSE-EEk egin zuen moduan.

Proiektu batek ondorio lazgarri horiek dituenean ezin da hain zurrin jokatu. Alderdi gisa pentsatzeaz utzi eta gizatasunez jokatzeko unea dela iruditzen zaigu, batez ere andoaindar guztion ongizatea jokoan dagoen une honetan. 14.000 baino gehiago gara andoaindarrek eta guztiongan pentsatu beharra dago horrelako zentzugabekeria baten aurrean.

Espero dugu, arduraz jokatzeko gonbidapen zintzo izan nahi duen gutun hau mugarri izatea erraustegiaren gaian eta zuen bitartekaritza lanari esker andoaindar guztiok horrek dakartzan arriskuetatik babesturik egotea etorkizunean".

**Ipar Haizea
erraustegiaren aurkako
plataforma**

PIANO JAIALDIAREN HAMAIKAGARREN EDIZIOA

Eguzki eta musika printzak asteburu osoan zehar

“Musika printzak” izena du jaialdiaren atal batek, erakusketa gela eskaini zutena. Piano doinuek deituta edo, eguzkiak bat egin zuten jaialdiarekin, asteburu ederra osatuz.

Ehunka izan dira partaideak eta haiekin batera Andoainera etorritako bisitariak. Dagoeneko Piano jaialdia herriak eskaintzen duen hitzordu erakargarriena da.

L artundo Fundazioko **Mari Karmen Urkola** lehendakaria izan zen 2017ko kartel lehiaketaren saria banatu zuena. Egilea, gainera, aurtengo edizioan partaide izan zen Paula Arjona musikaria izan da. Taula gainera igotzerakoan ondo baino hobeto bete zuen agindu zioten betebeharrak. Eta ez zuen antolatzaileak zoriontzeko aukeragaldurik izan. Pozarren zegoen jaialdiko hainbat egunetan bere begiekin ikusi zuenarekin.

UDALAK SEIASLE ZORIONDU DU Andoaingo Udal gobernu taldeak Seiasle elkartearen zoriondu eta eskerrak berona helarazi nahi izan dio: “Jaialdia nahitazko hitzordu bilakatu da piano-jotzaileentzat, eta horrek ekarri du, Andoain maparen erdigunean kokatzea. Udal gobernuak piano-jotzaile guztiak animatu nahi ditu instrumentu honen ikasketa prozesuan jarrai dezaten, eta gure eskerrak beroenak helarazi nahi dizkiogu Seiasle elkarteari jaialdiaren antolaketan egiten duen lan eskergagatik. Datorren urtean ere jaialdiak azken urteetako arrakasta bera edo hobea izatea espero dugu”.

AIURRI.EUS

Aiurri astekariak aurtengo Piano jaialdiaren eguneroko jarraipena egin du, otsailaren 15ean abiatu zen unetik beretik. Atariko emandien bideo zatiak ikusgai daude itxura berritua duen aiurri.eus webgunean. Besteak beste, Lorratzak taldearen aurkezpen bideoa edota kontzertu didaktikoa.

Noski, atariko horiez gain asteburu hainbat bideo ere ikusgai daude. Besteak beste, banaka edota sei eskutara eskainitako hainbat saio, igandeko azken ekitaldia eta sari banaketa ekitaldia. Eta baita, amaitzeko, Ulagaren eta Aiertzaren adierazpenak biltzen dituen bideoa ere.



Paula Arjona piano-jotzaileak egin du datorren edizioko kartela. Jendaurrean ikusgai ipini zuten taula gainean, sari-banaketa ekitaldian.



Udal agintariak eta Seiasle elkarteko kideak, sari-banaketa ekitaldian.



Itxaso Goikoetxea, Uxue Sueskun eta Izaskun Aizpurua sei eskutara aritu ziren.



“Musika printzak” zikloan Iñaki eta Izarbe Mujika anal-arrebak zuzenean aritu ziren.



Epaimahaikideak larunbat goizeko saioan.

PIANO JAIALDIAREN HAMAIKAGARREN EDIZIOA

Andoaingo piano jaialdia dagoeneko 2017ra begira

Zapi horiak herri osoan barrena zabaldu ziren asteburuan, Euskal Herriko toki askotatik etorritako piano-jotzaileek soinean zeramena. Beste behin ere, Seiasle elkarteak jaialdi bikaina antolatu du.

Erronka geroz eta handiagoa da eta gaur gaurkoz jaialdiak mugarik ez du. Izan ere, egindakoarekin nahikoa ez eta antolatzaileak dagoeneko 2017ari begira hasi dira. Musikarekiko pasioa zer den.

Jaialdiaren arima Seiasle elkarte boskoteak osatzen du. Azken balorazioa egiteke zuten arren, igande arratsaldean bertan Ainhoa Aiertzak eta Myriam Ulangak Aiurri astekarari lehen ondorioak eskaini zizkioten. Nola ez, aurtengo jaialdiaren martxarekin pozarren zeuden.

Bukatzeaz da aurtengoa. Zein da, beroan, egiten duzuen balorazioa?

Ainhoa Aiertza: Iaz hasitako ibilbidearekin jarraituz, aste osoko jaialdia antolatu dugu aurten, astelehenetik ostiralera, eta pianoaz gain beste instrumentuekin egindako kontzertuak ere eskaini ditugu.

Berrikuntzarik handiena eta interesgarriena, agian, kontzertu didaktikoa izan da, 48 musikari gaztetxok osatu dutena. Musikagile ospetsuen heriotza edo jaiotze urteurrenak abiapuntu hartuta, 6 eta 9 urte bitarteko haurrekin egin zen "Teklak dantzaz" izenburupean.

Asteburuan zehar, Euskal Herriko leku askotatik etorritako 805 piano-jotzailek parte hartu dute, hiru kategoria eta



Myriam Ulanga, Veronica Ordozgoiti, Txitxu Castro, Audra Almanaytite eta Ainhoa Aiertza jaialdiko antolatzaileak, igande arratsaldeko amaiera ekitaldian. Merezitako txalo zaparrada jaso zuten auditorioan zeudenen aldetik.

modalitatetan: bakarlariak, lau eskutara eta sei eskutara. Azken hau izan da berrikuntzarik handiena, eta oso ikusgarria eta polita gertatu da.

Alde horretatik, oso balorazio baikorra egin beharrean gara, piano-jotzaileek eta euren familiek oso portaera ona

erakutsi dutelako. Ordutegia bete dugu eta horrelako parte hartze handiarekin ez da bate-re erraza izaten.

800 eta gehiago piano-jotzaile izan direla aipatu duzue. Horrek egundoko antolaketa eskatuko dizue...

Myriam Ulanga: Izugarrizko lana da. Baina eskerrak aurreko aste eta hilabeteetan lan asko aurreratu dugun! Azken egunetan, presiorik handiena kontzertu didaktikoak eragin digu, ostiralekoak. Lehendik ere asteburukoari begira oso sartuta eta mentalizatuta gentozen,

eta behin ostiralekoa gantuita, dena oso erraz joan zaigu. Erakutsi duten jarreragatik eskerrak eman nahi genizkieke laguntzaile guztiei, baita ere kanpotik heldu den ikuslegoari. Denek ere Andoainen egonaldi atsegina igarotzeko aukera eduki dutela uste dugu. Eguraldiak lagundu du, eta kontzertuekin gozatzear gain, aldi berean, nahi izan duenak paseotxo bat eman du Andoaingo kaleetan barrena...

Ez nituzke ikasleak ahaztu nahi. Piano-jotzaileek normalean ez dute horrelako pianoekin jotzeko aukerarik izaten. Entzuleek ere normalean ez dituzte hainbeste piano-jotzaile eta hain maila onekoak entzuten.

Jaialdia eurek denek egiten dute handi. Gure eginkizuna hariak lotzea izaten da.


Dagoeneko hamabigarren edizioari begira jarrita zaudete...

Ainhoa: Halaxe da. Hurrengo urteko edizioaren kartelaren berri eman dugu, eta oraintxe, bero-beroan, zer alda litekeen pentsatzen hasi gara: aldaketak non sartu, hobekuntzak zertan egin...

EZINBESTEKOAK: PIANO-JOTZAILEAK, IKUSLEGOA ETA BOLONDRES TALDEA



Gaikako bilketaren emaitza



Mankomunitateak eman dituen datuak, grafikoan.

Eskualdeko Mankomunitateak zaborren gaikako bilketaren inguruko datuak eman ditu eta, aurreikus zitezkeen, Andoaingo bilketaren emaitzak eskualdeko datuen batz bestekoaren oso azpitik daude. Izan ere, Tolosaldea Mankomunitatean atez ateko bilketa sistema hainbat herritan abian dagoen bitartean, Andoainen oraindik bosgarren edukiontzia txertatu gabe dago. Urtarriaren amaieran 2016rako Udal aurrekontu berria onartu da, eta hor dagoene-

ko organikoa biltzeko edukiontzia txertatzea adostu dute. Ea aldaketa horrekin gaikako bilketa emaitzak gorantz egiten duten.

Egunoak emaitza kaskarrak dira. Tamainaz antzeko herriarekin alderatzea besterik ez dago:

Tolosa:

- Gaikako bilketa: %72,31.
- Errefusa: 95kg Urte, biztanleko.

Andoain:

- Gaikako bilketa: %31,96.
- Errefusa: 232kg Urte, biztanleko.

Espetxeetara martxa, andoaindarrak Teruelen



Ibilaldia egin ostean espetxearen kanpoaldera hurbildu ziren.

Larunbat goizaldean Andoaindik eta Hernanitik hainbat autobus irten zen Teruel aldera, bertako espetxean dauden presoek elkartasuna adieraztera. Oinez zeharkal-

dia egin ostean, urrunetik bada ere, presoak agurtzeko aukera izan zuten.

Martxan parte hartu zutenek joan etorria egun berean egin zuten.



Distantziatik bada ere, presoak agurtzeko aukera izan zuten.

Kontrol sistema berria martxoaren 1etik aurrera ipiniko dute

Matrikula irakurriko duen gailua ipiniko dute

Eskola Kalea eta Kale Nagusiko oinezkoen bidean, ibilgailuen kontrol sistema berria jarriko dute. Udalak jakinarazi duenez, datoren martxoaren 1etik aurrera izango da. Baimendutako ibilgailuek bakarrik sartu ahal izango dute, eta horretarako matrikulak irakurtzeko gaitasuna duen gailu bat ipiniko dute. Ez zaio sarbidea emango, beraz, baimenik ez duen ibilgailuari. Baimendutako diren autoak hauek dira:

- Oinezkoen bidearen zonaldean garajea duten pertsonen ibilgailuak.
- Zonalde horretan bizi diren eta ezgaitasuna duten pertsonen ibilgailuak.
- Baldintza bereziengatik sarbiderako baimena duten saltokietako titularren ibilgailuak.

BAIMENDUTAKO ORDUTEGITIK KANPOKO KASUAK

Trafikoko Udal Ordenantzaren arabera, baimendutako ordutegia asteleheneetik larunbatera 09:00etatik 13:00etara da.



Kontrol sistema berria martxoaren 1etik aurrera ipiniko dute.

Hortik kanpo sarbidea nahi duenak alde aurretik baimena eskatu beharko du.

Horrez gain, bizilagunen baten edota lokaletako titularrek euren jabetzan obra txikiren bat gauzatu nahiko balute, lan horiez arduratuko diren profesionalen ibilgailuentzako sarriera baimena eskatu beharko dute. Kasu horietan sarbide mugatua izango dute asteleheneetik ostiralera, 08:00etatik 20:00etara. Baimen hori euren

lanetarako behar duten materialaren zabalenerako bakarrik emango da.

Udalak jakinarazi duenez, baimendutako ordutegitik kanpo sartzen diren ibilgailuei zigorra ezarriko zaie.

Astelehenean bertan Eskola Kalea, Kale Nagusia eta Zumea kaleko bizilagunek Udalen oharra jaso zuten etxe buzoian, hartutako neurrien xehetasun guztiak agertzen zirelarik.

MARTXOAREN ZORTZIKO KALEJIRAREN ATARIKOAK



Martxoaren 8a iristearekin batera, Andoaingo Udaleko lantail ezberdinek programazio oparoa lantzen dute. Deituriko solasaldi eta ekitaldiekin batera, bada bat azken urteetan guztien artean nabarmentzen dena: **"Pausoz-pauso, martxoak 8 emakume"** kalejira. Martxoaren 5ean eguerdiko

hamabietan abiatuko da Bastero plazatik, festa giroan, berdintasunaren alde lan egindako emakumeak eta kolektiboen omentzeko helburuarekin. Astearte iluntzean, Basteroko ekitaldi aretoan bildu ziren egitasmoaren sustatzaileak eta aurten omenduko dituzten emakumeak.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Euskara Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

IKERKETA KAZETARITZA GARATZEKO EGITASMO BERRITZAILEA NUÑO SANTILLANA ANDOAINDARRAREN ESKUTIK

Gabe, ikerketa kazetaritza sustatzeko egitasmo berria

Gabe izeneko aldizkari digitala plazaratuko da laster, ikerketa kazetaritza ardatz izango duena. Euskal Herriko kazetaritzan hutsune bat bete nahiko lukeela aitortu du Nuño Santillana andoaindarrak,

agerkariaren bultzatzaileetako batek. Proiektuaren ezaugarriak zeintzu diren kontatu digu. Harpidetza kanpaina abiarazi dute gabe@gabe.eus posta elektronikoaren bitartez.

Zer izan nahi du Gabe-k?

Euskal Herrian ikerketa-kazetaritza egingo duen proiektu bat da. Bidegabekeri eta ustelkeri kasuak jakinarazi eta salatzeke tresna izango da, eta horretarako informazio eta datuak zabalduko ditu gehienbat. Informazio horrekin ondorioak ateratzea, irakurle eta harpidedunen esku utzi nahi dugu; izan ere, harpidedunak irizpide propioa badiela iruditzen baitzaigu. Alde horretatik, badakigu zer egin nahi ez duen aldizkariak: filtrazio interesatuetan oinarritutako kazetaritza, hots, ikerketa kazetaritza balitz bezala aspaldi honetan saltzen ari zaigun horixe. Gure kasuan, sortuta dagoen informazioa jakinarazi besterik ez dugu egin nahi.

Pedagogiaz jokatu nahi dugu, infografia oso kontuan hartuta. Umore satirikoaz eta kritikoaz zipriztinduko da guztia; Iñigo Urkullu berak ere arrazoi batenatik nahiz bestearengatik barre egitea lortuko dugulakoan gaude!

Hutsuneren bat betetzera al zatozte?

Ardi Beltza eta Kale Gorria aldizkariak eta Egin egunkaria itxi zituztenetik ikerketa kazetaritza modu erregularrean jorratuko duen proiektua ikusten genuen faltan, eta hutsune hori betetzera jo nahi genuke.

Zer adierazi nahi da Gabe izenarekin?

Gauza asko: beldurrik gabe, menpekotasunik gabe, zentsurarik gabe... Kale gorria zapaltzen dutenen ondoan egon nahi dugu: langabeekin, etxetik kalera-tuekin, preferenteen biktima direnekin, presoen familiarrekin, poliziaren jazarpena jasaten dutenekin, auzoan arazoak dauzkatuen auzotarrekin... Gizarte mugimenduen ikuspuntua nagusituko da, maiz medio nagusietan ateratzen ez direnen ahotsei lehentasuna emanez. Ez gara inoren organoa. Ezkerrekoak gara, eta geure egiten dugu espi-



Nuño Santillana andoaindarrak.

ritu internazionalista, baina Euskal Herriko eta Euskal Herriarentzat jardungo gara.

Nortzuk osatzen duzue proiektua?

Beldurrik gabe izeneko Kooperatiba da bultzatzailea. Hiru bazkide gara: Ahoztar Zelaieta kazetaritza lanen jorratzailea, Txisko Espinosa produktuaren diseinatzailea, eta neu administraria. Bestalde, beste hiru pertsona arituko dira. Ekonomia sozialaren espirtua erabiliko dugu; ez dugu onartuko ez iragarki instituzionalik ezta finantza erakundeekin inolako tratuerik; geure independentziari eutsi nahi diogu.

Zer eskatuko diozue harpidedunei?

Nahiz eta webguneko edukiak dohainik irakurri ahal izan, harpidedunei ekarpen ekonomikoa eskatuko zaie, nork bere egoera pertsonalen arabera. Prezioak finkatu gabe dauzkagu oraindik. Nolanahi ere, ez genuke nahi harpidedunak jarrera pasiboa hartzerik; kolaboratzailea eta parte hartzailea izatea nahi genuke. Inplikatu dadila proiektuan, eduki ditzakeen gogo eta gustuen arabera, noski. Forma-

zio ikastarotxoak antolatuko ditugu, euren auzo edo herrietan ustelkeria edo bidegabekeria kasuren bat antzemanaz gero zer modutara jokatu jakin dezaten.

Zein formatuan helduko zaizkigu zuen edukiak?

Hilabetekaria izango da, eta printzipioz modu digitalean agertuko da, baina ez dugu baztertzen paperezko edizioa, kontuan hartuta pertsona asko direla paperaren alde erromantikoa-ri eusten diotenak, adinagatik, erosotasunagatik...

Harpidedunei aukera emango zaie hilabetekaria eta bestelako dossierak euskarri digitalean, PDF formatuan eduki ditzan, gordetzeko. Urtean liburu bat edo bi plazaratzeko asmoa dugu. Lehen alea, 2015ean atera dugu, Kutxabanki buruzkoa.

Eta zein hizkuntzatan?

Elebiduna izanik, euskarak izango du nagusitasuna.

Lehen alea noiz plazaratzea espero duzue?

Txukun egin nahi ditugu gauzak, eta horrexegatik goaz poliki. Une honetan proiektuaren

aurkezpen fasean gabilta, herri herri. Andoainen, apirila alderako daukagu pentsatua ekitaldia egitea. Harpidedunen kanpaina, berriz, apirilean hasi eta uda bitarteko horretan luzatu nahi genuke. Oraingoan, gurekin harremanetan jartzeko helbide elektronikoa ireki dugu: gabe@gabe.eus

Ba al dago zer ikerturik Euskal Herrian?

Materia ugari dago, bai! Araba eta Nafarroan dago ikertzeko gehiena, eta laster emango dugu zer esana alde horretan. Gipuzkoan eta Bizkaian auzi txikiagoak daudela ikertzeko esango nuke. Herritarrek eskubide guztia daukate zenbait Udaletan zer gertatzen ari den jakiteko, errauskailuaren atzean ze interes ekonomikoa dauden...

Kutxabanki buruzko liburua aterra berri duzue. Zer aurkituko du irakurleak?

Labur esateko, galdera batzuei erantzuten saiatzen da: nork agintzen duen herri honetan benetan, nor den nor joko horretan, nondik datorren dirua, eta nora doan...

Arlo juridikoa gogoan hartuko zenuten, noski, ikusita zeri ekin nahi diozuen...

Bai, jakitun gara zein eremutan sartzen garen. Ardi Beltza-ren garaia bizitutakoak gara Pepe Reirekin-eta. Garzonek eta antzekoek egurru izan gaituzte, baina sekula ez dute jakin argudio sendorik ematen gure aurka. Zer gerta ere, Iñigo Iruin abokatu gertu daukagu, eta bestela ere, baliagarria izango zaigu kultur nahiz finantzial munduetan dabilen eskarmentuko jendearen laguntza.

Arazorik eduki al duzue orain arte?

Pertsonalki gertatu zaidana kontatu dezaket, komunikazio arloan kontsultoritzak zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bateko langilea naizen aldetik. Bada, prentsan lehen elkarrizketa egin

zigitenean, handik bi egunera, bezero batek gure enpresarekin zeukan kontratua haustea erabaki zuen. Bezero hori enpresa erakunde bateko zuzendaritzako kidea da, eta politika egiten ari nintzela esanez arrazoitu zuen kontratu haustea. Nik erantzun nion aldizkariak bidegabekeria ekonomikoa jarriko dituela argitan, ez duela politika egingo.

Zerorri nola sartu zinen ikerketa kazetaritzan?

Ni Burgosko semea naiz berez. Konpromisu sozial eta politiko handiko familia baten baitan jaio eta hazia. Emigranteei klaseak ematen zizkien aitarengandik jokabide ereduak jaso genuen semeek. 13 bat urte nituela, faxistek, nire anaia zaharren lagun bat hil zuten Valentzian. Hilketak bereziki hunkitu ninduen, eta uste dut hura izan zela pizgarri gizarte erakundeetan eta faxismoaren aurkako mugimenduetan militarizatu hasi nedin. Laster, Espainiak Euskal Herriarekin daukan arazo politikoa azaltzea helburu zuen komiteetako batean sartu nintzen. Hala ere, Ardi Beltza-ko kolaboratzaile bihurtu nintzen. Egin kontu nola ibiliko zen 19 urteko gazte bat gai zikin eta ilunak ikertzen; besteak beste, Inestri-llasek eta eskuineko elementuek zeuzkatzen tiro zelaiak, droga trafikoa kontuak...

Eta Andoaingo herriarekin nolatan egin zenuen lotura?

Aritz Arnaiz herriko presoa lekuz aldatu eta Burgosko kartzelara eramanez zutenean hasi nintzen harremanetan jartzen Andoaingo jendearekin. Gutxira, Andoainen bizitza erabaki nuen, eta Carlos Garcíaren etxera etorri nintzen. Gertutik ezagutu nuen beraren aurkako epaiketa, poliziarengandik jasan zuen jazarpena... Garaitsu hartan, Arrasaten gose greba jendetsua burutu zen, eta bertan ezagutu nuen geroztik nire bikotea dena, andoaindarrak.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Kursaal, egun batez emozio gune

AHAZTUTAKO BIKTIMEI AITORPENA

Donostiako Kursaalak hainbat ekitaldi hartzen ditu urtean zehar: kontzertuak, kongresuak, merkataritza, omenaldiak eta abar luzea. Otsailaren 20koa emozioz bete zen: Ez zen eztabaidarik, ez zen kontzerturik; ez, emozioa zen, eta ez bakarra, emozio askotarikoak ziren: tristura, poza, lasaitasuna, bakea. Eta emozio pertsonalak zein kolektiboak, amankomunekoak Kursaal gunean airean batetik bestera hegan zebiltzanak. Isiltasunak ere, irudiak lagun, ematen zion horrelako barne kutsua, gizakiaren emozio eta sentimenduek barnean baitute gune berezia. Leihotatik sartzen ziren eguzki printzak ere argia ematen zioten ekitaldiari, argia eta energia.

Donostia 2016 hiriburutzaren testuinguruan herri honetan indarkeriaren biktima izan garen orori aitorten eta oroi-men berezia egitea erabaki dela. Jakina, horrelako ospakizun batek beti du oihartzun zabala, eta ongi deritzot Europako kultur hiriburu izanik, biktimei, bizikidetzari eta honen inguruko gaiei leku berezia ematea. Larunbatean, 1960-1978 bitartean Estatuko indarren ondorioz hilak, torturatuak eta orokorrean giza eskubideak urratuak izan ziren biktimei egin zitzaizen aitortpena. ETAkoen biktimei ere eginen zaie, noski. Orain arte, eta ondotox lagundu dute horrela izan dadin zenbait komunikabide eta Estatuko Gobernu zentralak, ETAre biktimak aitortu dira soilik. Bestean ahaztuta egon gara: poliziak eraildakoak, torturatuak izan direnak. Lehendakariak ekitaldian zioen bezala, argia egin beharra dago gu ere biktima gisa onartuak eta aitortuak izan gaitezten.

Ekitaldiaren formatuari edo egiturari dagokionean denbora ongi banatua izan zen, gehiegikeriarik gabe. Ohiko sarrera eta txostenaren egileen aurkezpena ondoren, zazpinaka mahai baten inguruan jarri ginen. Zazpi historia, zazpi kontaketa eta zein baino zein gogorragoa! Hiru puntu izan ziren aztergai:

1. Beharrak.
2. Helburuak.
3. Jarrerak.

1. Beharrei dagokionean garbi geratu zen biktimaren lehen beharra bere sufrimendua

norbaiti adierazi eta entzuna izatea dela. Nik, nire aldetik, garbi utzi nuen guztiz beharrezkoa eta terapeutikoa dela barnean daramagun sufrimendua kanporatzea; barnean geratzen bada usteldu egiten baita eta ustelkeriak barne osoa pozoitzen du. Bazegoen emakume bat, zeinen anaia poliziak manifestazio batean hil zuten, bere amari eginiko irainak eta mehatxuak kontatzen zituen. Niri eta beste bati eginiko torturak ere gainontzekoen harridura sortu zuen. Ez genuen elkarren sufrimenduen berririk eta, besteei kontatze hutsarekin emozioak pil-pilean sortzen ziren baina baita lasaitasuna ere, bakea ez esatearren.

2. Helburuari dagokionean, berriz, aurretik informatu gintuzten lege zirriborro bat aurkeztu dela parlamentuan, hau dena lege baten bidez bermatu nahi baita. Nik, berderen, ez dut lege hori eza gutzen baina taldean garbi utzi nahi izan genuen legeak biktima oro jaso behar dituela; herritar guztiek parte hartu behar dutela lege horren eraikuntzan.
3. Eta jarrerei dagokionean, azkenik, jarrera etikoak aipatzen ziren eta jarrera barnerakoia kanpoan inor utzi gabe.

Jakina, errekonozimendua egon badago, baina Justizia? Hemen azpimarratzen zen Gobernu zentralak ez duela errazten. Adibide gisa Argentinako kereila, Justizia Unibertsala alegia. Eta lege horrek, nolabait exijitu beharko lioke Gobernu Zentralari 1978ko amnistia legea bertan behera utz dezala garai hartako torturatzailak eta epaituak izan daitezten.

Bi testigantza ere, biak gogorak oso, egon ziren. Bideoa ere bai sentimenduz jantzia. Bukatzeko Lehendakariaren hitzak. Autokritika, justizia errekonozimendua ta aipatu zituen. Hitz borobilak, noski.

Nire irudiko, eta nire sentsazio eta emozioei begiratuta esan dezaket Argentinakoa gogorarazi zidala: sufrimenduen kanporatzea eta errekonozimendua. Ondorioz, lasaitasuna eta bakea! Ea epe laburrean biktima orori, aitorten bat, bakarra egiten zaigun bata bestea- ren sufrimendua partekatze.

HITZ-GEZIDUNAK

Labainarazten duen harria		Taktikaren arabera		Larribarko	
Nafarroako eskualdea		Kezka, egonezina		Toka, nau	
Ez du lagunik					
Martiri					
Andaluziako hiria	Nafarroako herria	Idiaren okel			
Zangoetako giltzadurak	Lerroaren arabera	Oihua			
				Boroa	
				Nau	
* IRUDIKO HERRIA					
Nahigabea, atsekabea					
				Ez eme	
				Gipuzkoan, zain	
Kristal			Tente		
Gizon izerna			Ornoaren erdian		
		Landare lastoduna			
		1000			
Europako estatu bateko					

SUDOKU

9 x 9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3 x 3-ko laukian ere

		3		4				
	1	6		5				
	2				6	9		
6	3			2		7		
		5			3			
	4			7		2	1	
	6	7				5		
			6		4	1		
			4		8			


5 x 5

Ezker eskuin eta goitik behera, zenbaki bakoitzean hitz bera aterako zaizu

	1	2	3	4	5
1					
2					
3					
4					
5					

1. Galera eduki.
2. Pluralean, azalera unitatea.
3. Errenkada, ilara.
4. Darama. 5. Ukapenak.

HIEROGLIFIKOA



Nork eman du agindu hori?

ERANTZUNAK

7	9	3	2	6	4	1	8	5
8	1	6	9	3	5	7	4	2
5	2	4	7	8	1	6	9	3
3	8	6	7	8	1	3	2	5
4	6	7	8	1	3	2	5	9
9	4	8	3	7	6	5	2	1
2	7	5	1	4	9	3	6	8
6	3	1	5	2	8	9	7	4
8	1	6	9	3	5	7	4	2
5	2	4	7	8	1	6	9	3

Kapitalinak

U	K	O	A	K
D	A	R	O	A
L	E	R	R	O
A	R	E	A	K
G	A	L	D	U

L	A	A	R	I	R	I	B	N	A	A	R
T	A	A	R	I	K	I	B	N	A	A	R
L	A	K	A	R	I	K	I	B	N	A	A
L	A	B	A	R	T	I	R	I	B	N	A
S	M	A	R	T	I	R	I	B	N	A	A
S	L	A	U	N	A	K	I	B	N	A	A
B	E	L	L	A	B	O	N	A	A	R	
S	E	L	L	A	B	O	N	A	A	R	
B	E	L	L	A	B	O	N	A	A	R	
M	L	E	I	A	R	R	I	B	N	A	A
B	L	A	S	I	R	A	K	A	A	R	
A	L	E	M	A	A	R					



KIROL ALBISTEAK

Mikel Esnal, Andoain herriak eman duen igerilari handia

Iruñean Euskal Herriko txapelketetan urrea lortu zuen 50 metro librean.

Eta ez hori bakarrik, 100 metroko proban txapelketan orde izan zen, zilarrezko domina eskuratuz. Borja Apeztegia bere entrenatzaileak adierazi bezala, "marka pertsonalei dago kienez ez da oso lehiaketa ona izan Mikelentzat. Hala ere, jakin badakigu, Iruñako igerilekuan marka onak egitea oso zaila dela". Euskal Herrikoari bezainbesteko garrantzia eman nahi diote bi aste barru Toulus-en jokatu duten lehiaketari, hura Gipuzkoako Selektzioko kide bezala egingo duena.

Euskal Herrikora itzuliz, Mikel 100 librean 54:48 denbora egin zuen, bere 54:19tik oso gertu. 50 tximeletan 26:50 denborarekin bere marka pertsonala berdindu zuen. 50 librean, urrea lortu zuen proba, berriz 24:81 denbora egin



Mikel Esnal Euskal Herriko igeriketa txapelketan.

zuen. Bere markatik urrutu geratu zen, antza teknikoki ez zelako uretan ondo kokatu. Beraz, hori ikusita, distantzia horretan aurkaririk ez duela esan daiteke.

Mikel Esnal andoaindarrak dominak eta marka onak lortzen ari da bere ibilbide osoan zehar. Andoain herriak eman duen igerilari handia da. Zorionak!

Elgarresta-Aldunberri eta Loitegi-Esnaola finalera

Kadete mailako Iker Elgarresta-Aitor Aldunberri eta senior mailako Julen Loitegi-Eñaut Esnaola bikoteak Gipuzkoako trinketeko finalak jokatzeko sailkatu dira. Kadete mailakoek Oiarperen aurka garaipen argia lortu zuten, 40-11. Senior mailakoak lehendik sailkatuta zeuden, eta azken jardunaldian galdu egin zuten.

GIPUZKOAKO TRINKETEA

Urnieta 40
Oiarpe (3) 11
Iker Elgarresta-Aitor Aldunberri.
Kadete mailakoak finalera.

Urnieta 14
Behar Zana (3) 40

Unai Arozena-Eñaut Esnaola.
Senior mailakoak ere finalera, ezustekorik ez bada Loitegi-Esnaola arituko dira.



Kadete mailako Iker Elgarresta eta Aitor Aldunberri.

UDABERRI TXAPELKETA

Urnieta 39
Altzatarra (2) 40
Xabier Amantegi-Xabier Garagorri.

Garaipenak eskuetatik ihes egin zien urnietarrei. Lastima, markagailuan 39-36 aurretik izan zirelako.

Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak:

Ganbara SenM 58-56 Añorga
Axular 40-29 Ganbara JubM
Alumak 31-42 Ganbara InfM

Datorren jardunaldia:

Ganbara JubM-Oiartzun
12:15. Allurralde.
Otsailak 27, larunbata.

Kronika:

Ganbara SenM 58-56 Añorga

Etxekoan hasiera makala izan zen, markagailuan 14 puntu azpitik joan zirelako. Atsedenaldira 8 puntura murriztu zuten alde. Lanketa handia eskatu zuen partida izan zen, defentsa lanari esker bideratu zena.

Futbola, asteburuko partidak

ERREGIONAL OHOREZKOA

23. jardunaldia:

Ostadar 3-2 Euskalduna

Sailkapena:

1. Tolosa	48 puntu
2. Anaitasuna	48 puntu
3. Mutriku	40 puntu
12. Euskalduna	28 puntu

24. jardunaldia. Larunbata, 27:

Euskalduna-Ordizia. 17:45.

PREFERENTE MUTILAK

20. jardunaldia:

Urnieta 2-1 Lengokoak

Sailkapena:

1. Añorga	46 puntu
2. Sanpedrotarra	46 puntu
3. Baskonia	43 puntu
5. Urnieta	39 puntu

20. jardunaldia. Larunbata, 27:

Trintxerpe-Urnieta. 17:30.

Areto futbol txapelketa

A taldea, emaitzak:

Aure Maiton 7-3 Txalaka
Ozu 3-9 Centro Extremeño
Keler 1-0 Dad Kutxa

Sailkapena:

1. Aure Maiton 9

B taldea, emaitzak:

Drink Team 3-4 Ondarreta
Pausoka 2-11 Hogar Extremeño
Egur 3-10 Ekaitz

Sailkapena:

1. Hogar Extremeño 12

Eskubaloian garaile

Urnieta SenN 29-19 Egia

Hasieratik amaierara arte garaipena kontrolpean izan zuten. Bigarren faseari ekingo diote orain. Bizkaiko aurkariak izango dituzte.

Ordizia 17-25 Urnieta SenM

Bi jokalariren baja garrantzitsuekin, garaipena lortzeko nahi baino gehiago sufritu behar izan zuten. Senperean 11 gol sartu zituen.

Alvarez-Eskudero, finalera



Eskudero eta Alvarez, final aurrekoak jokatu eta gero.

Ez da Goiburuko eskuz binakako txapelketa, ezta Sorabillako Iturzaeta memoria- la ere. Musean Jon Eskudero eta Andoni Alvarez andoaindarrak Euskal Herriko Mus

txapelketako finala jokatzeko sailkatu dira. Zuberoako Urdiñarben jokatu da martxoaren 5ean.

Zortetik onena bi andoaindarrei!

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-RURINTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Bizkua



TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:



Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba
Lizeaga, Izarne Olano
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia:
diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea,

banaketa
arduraduna:
Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi
(Andoain), Garazi
Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

OTSAILAREN 25ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Musika

Andoain, Bastero

- **Ken 7:** Sarrerak agortuta. Otsailak 26, ostirala.

Zinema

Andoain, Bastero

- **"El renacido"**, Leonardo Di Caprio aktorearekin. Larunbata, 27. 19:30, 22:00. Igandea, 28. 19:30, 22:00.
- **Haurrentzat:** "Alvin y las ardillas 4". Otsailak 27 eta 28. 17:00.

Bertsoak

Andoain

- Sahararen aldeko saioa: Beñat Gaztelumendi, Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Aitor Mendiluze eta Unai Muñoz. 12:00. Bastero. Otsailak 28, igandea.

Ikuskizuna

Urnietan, Sarobe

- "Super H hontz zuriaren lurraldean", liburuaren aurkezpen musikatu: Miren Amuriza, Aukeran... 17:30. Otsailak 28, igandea.

Ikastaroa

Andoain

- Euskal dantzak ikasteko aukera, **Urki**ekin: "Oinarrizko euskal plaza dantzak egiteko gogoia duzuela? Anima zaitzete euskara praktikatuz, zuen seme-alabekin batera parte hartzera!". 18:00. Arrate. Martxoak 1, asteartea.

Kabareta

Andoain, Bastero

- "Cabaré Chihuahua" musikal kritikoa da, euskomexikarra eta zombi xamarra. 21:30. Bastero. Martxoak 4, ostirala.

Martxoak 8

Urnietan

- **Martxoak 1-31** "Emakume begiradak" Iñaki Vergararen argazkiak ikusgai Lekaion.
- **Martxoak 7, astelehena** 19:00. Lekaio. Gaztelaraz. Helduentzat ipuin kontaketa saioa.
- **Martxoak 8, asteartea** 19:15. Lekaio. Euskaraz. Mahai-ingurua: Mainer Mendizabal pala jokalaria ohia, Ainhoa Ostolaza txirindulari ohia, Nahikari Garcia eta Jokin Lizeaga.
- **Martxoak 9, asteazkena** 19:00. Sarobe. Azpitiuluak gaztelaraz. "Las Pelotaris" dokumentala.
- **Martxoak 13, igandea** 19:00. Sarobe. Euskaraz. "Ene maite kuttun guztiak", poesia emaldia.

Martxa

Eskualdea

- Errausketaren kontrako martxa Zubietara. 08:00 Andoain, merkatu plaza. 09:30 Urnietan, San Juan plaza. 10:30 Lasarte-Oria, Okendo. 11:00 Zubieta, plazan. 13:00 Zubieta, frontoia. Otsailak 28, igandea.

Batzarra

Asteasu

- Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren biltzar nagusia. 11:00. Ekitaldi aretoa. Martxoak 13, larunbata

Farmaziak

Eskualdea

- Andoain: Gorospe. Urnietan: Aizpuru (Hernani).
- Gaez: Urrutia (Hernani). Otsailak 27 eta 28.

Martxoak 8

Andoain

- **Martxoak 4, ostirala** 18:30 Egitarauaren aurkezpena eta kartel lehiaketaren sari banaketa ekitaldia. Mahai-ingurua: "Aitatasuna, maskulinitatea eta etxeko espazioaren dimentsio politikoa". Hizlariak: Angel Toña Jaurraltzeko sailburua, Izaskun Landaida Emakundeko zuzendaria, Haizea Barcenilla arte kritikaria eta Pello Ulazia artista.
- **Martxoak 5, larunbata** 12:00 Bastero plazatik hasita "Pausoz-pauso, martxoak 8 emakume" kalejira. 20:00 "Ez da kasualitatea" bertso saioa: Alaia Martin, Onintza Enbeita, Ane Labaka. Gai jartzailea: Amaia Agirre. Musikariak: Araitz Bizkai, Gari Otamendi.
- **Martxoak 8, asteartea** 19:00 Zine foruma: "Minerita" eta "Virgen Negra".
- **Martxoak 10, osteguna** 17:30 Kultur aniztasunaren saioa gazte lokalean.
- **Martxoak 11, ostirala** 21:30 Olatz Zugastiren kontzertua.
- **Martxoak 12, larunbata** 20:00 Las Chirigóticas taldearen "Juanita Calamidad" antzezlan.


Antzerkia

Urnietan, Sarobe

- "Tartufo" Zurriola antzerki eskolaren eskutik. 19:30. Euskaraz. Martxoak 6, igandea.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Costanza Mateok 6 urte beteko ditu otsailaren 27an. Ondo pasa! Muxu piloa zuretzat. Zure osaba-izeba, amona eta lehengusuak.

URNIETA

ZORIONAK



Ane Rapun Perezek otsailaren 25ean 10 urte bete ditu. Etxekoen partetik, ondo-ondo ospatu zure eguna. Jarraitu beti bezain alai. Muxu handi bat.

ANDOAIN

URREZKO EZTEIAK



Victorino eta Charo, martxoaren 19an ezkondu zinatela 50 urte beteko dira. Earki ospatu genuen eguna familia eta lagun artean. Horrela segi!! Muxu erraldoak etxekoen partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Otsailaren 13an 8 urte bete zituen **Ekiñe** gure etxeko altxorak! Etxekoen partetik, mila muxu guapa!

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak **Iker** zure lehendabiziko urtebetetzearan. Zure familia guztia- ren partetik, muxu asko.

URNIETA

ZORIONAK



Irati martxoaren 13an zure eguna! 7 urte beteko dituzu eta denok pozik gaudete! Besarkada handia. Amona.

ANDOAIN

ZORION AGURRAK.

Erraza da, eta dohainik: diseinua@aiurri.eus.

MERKATU

TXIKIA. Andoainen pertsona bat behar dugu, astean zehar emakume bat orduka zaintzeko. 628947241 / 605 736 632.

"Instant1ean" argazki tailerra eta lehiaketa

Andoingo Gazte Lokalean "Instant1ean" argazki tailerra eta lehiaketa martxan jarriko dituzte hurrengo asteetan. Egutegia: • Instagram tailerra: martxoak 2-4. • Argazki rallya: martxoak 9-11. • Lehiaketarako informazio puntua: martxoak 16-18.

• Facebookeko tribiala: martxoan zehar. Jarduera horien sari-banaketa ekitaldia datorren martxoaren 18an izango da, 18:00tan hasita. Instagram: @andoingl Facebook: Andoingo Gazte Lokala E-posta: andoain@gaztelokala.com

OTSAILAREN 19TIK MARTXOAREN 2RA eskatu zure olio bidoia ondorengo guneetan

-Ernaitza
-Irunberri
-Martin Ugalde
-AEK euskaltegia
-La Salle
-Udaletxea

Nafar hegoaldeko urta eskutik eskura



32€

22,50€

JASOTZEKO LEKUAK
ERNAITZA ETA ANDOINGO AEK EUSKALTEGIA
MARTXOAK 14 ETA 15



ON EGIN